

## LEGAZPI / Idazle euskaldunekin ospatuko dute egunotan Legazpin Liburuaren Eguna

Apirila liburuei lotutako hilabetea izaten da. Batetik, apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen delako, eta bestetik, apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna egiten delako. Bi egunak aitzakia hartuta hainbat herritan liburuarekin lotutako eta irakurzaletasuna bultzatzeko makina bat ekintza antolatzen dira.

Goierrri mailan, Legazpi da liburuarekin lotuta ekintza gehien antolatu dituen herria. Jasone Erostarbe, liburutegiko arduradunak esan duenez, urte osoan zehar antolatzen dituzte ekintzak, "baina apirilekoak bereziak izaten dira". Astelehenean hasita, ostiralera bitartean ekintza ezberdinak antolatu dituzte, "guztiak irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin", gaineratu du liburutegiko arduradunak.

Antolatutako ekintzen artean, euskal idazleak gonbidatu dituzte aurten ere Legazpira. "Euskal idazleak ezagutzera ematea da ekintza honen helburu nagusia", esan du Erostarbek. Izan ere Legazpin euskaraz irakurtzen dutenen kopurua "oso txikia da oraindik", zehaztu du liburutegiko arduradunak.

Hala, Irati Jimenez Nora ez dakizun hori eta Asier Mendoza Beste gu liburuak aurkezten izan ziren herenegun eta atzo, Batxilergoko eta DBHko ikasleekin. Gaur, aldiz, Aingeru Epaltzaren bisita jasoko dute, 18:00etan liburutegian bertan. Casta de Bastardos liburua izango du hizpide, eta gaurkoa saio irekia denez, herritar guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta.

Gaur eta bihar bisita gidatuak egingo dituzte liburutegira bost urtetik aurrerako umeeekin. Erostarberen hitzetan, "bisita hauekin txikienen artean liburutegia ezagutzera eman nahi dugu, eta etorkizunean jarraikortasuna ziurtatu". Amaitzeko, ostiralean Maite Franko ipuin kontalaria gonbidatu dute.

Liburutegian izango da, 18:00etan. "Hilero egiten dira kontaketak, eta oso arrakastatsuak dira. 50 bat haur elkartzen dira", dio Erostarbek.

Liburutegiak 3.460 bazkide ditu, momentuz, eta bertako arduradunak gustura daude.

Urretxun, Zumarragan eta Beasainen ere bat egingo dute Liburuaren Egunarekin

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, Urretxun, Zumarragan eta Beasainen ere izango dira hainbat ekintza. Bihar, adibidez, Urretxuko liburutegian Isilka misilka, isiltasunaren zaindaria ipuin kontaketa eskainiko du Maite Frankok. Bost eta zortzi urte arteko haurrei zuzenduta dago eta 17:00etan hasiko da. Larunbatean, berriz, urteroko liburu azoka izango da Areizaga-Kalebarren plazan. Liburuak partekatzeko, saltzeko eta trukatzeko aukera izango da 11:00etatik 14:00etara.

Beasainen aldiz, apirilaren 23an ipuin kontaketa berezia antolatu dute. Haurrek egindako marrazkiak jaso dituzte egun hauetan liburutegian. Bakoitzak printzea eta printzesaren marrazkiak egin behar izan ditu. Bost aukeratuko dituzte eta Printzesa eta ilarra ipuin kontaketa berezia egingo dute liburutegian 17:30etik aurrera.